

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2086

*525/2022 EBAZPENA, apirilaren 1ekoa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Juan Ignacio Larruscain Zorroza jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Larrialdietako Atal Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarriz.*

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentearen abuztuaren 11ko 1775/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Larrialdietako Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 16anko EHAA 250 zk. eta 2021eko abenduaren 23anko BOE 306. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Juan Ignacio Larruscain Zorroza jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESiko Larrialdietako Atal Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorritik Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Ignacio Larruscain Zorroza jauna Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESiko Larrialdietako Atal Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko martxoaren 25a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatu den epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espediente eginda, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESLari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bilbao, 2022ko apirilaren 1a.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentea,  
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.